

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

Kultura

10.ildoko dirulaguntza-deialdia ebaztea – 2021ean egitekoak diren kultura-proiektuetarako eta finkatutako ekitaldi eta jaialdietarako dirulaguntzak

Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko otsailaren 26ko erabakiaren bitartez onetsi ziren 10.ildoko dirulaguntzen –2021ean egitekoak diren kultura-proiektuetarako eta finkatutako ekitaldi eta jaialdietarako dirulaguntzak– berariazko oinarriak eta deialdi publikoa (2021eko martxoaren 22ko ALHAOn, 32.zenbakia eta akatsen zuzenketa 2021eko apirilaren 9ko ALHAOn, 38.zenbakia), laguntzak emateko prozedura gisa norgehiagoka baliatuta, 200.000,00 euroko zuzkidurarekin, udal aurrekontuko 23.12.03.3341.489.33 partidaren kontura, eta diruz lagundu daitezkeen kontzeptu hauek ezarri ziren bertan:

a. Hirian erreferente diren edo bertan kultura sustatzera bideratuta dauden ekimen, jaialdi eta egitarauak, edozein alorretan delarik ere (arte eszenikoak, musika, ikus-entzunezkoak, letrak, folklorea, arte plastikoak edo beste), betiere kultur agente lokalek antolatutak.

b. Dinamizazio soziokulturalera, kulturartekotasuna sustatzera, bizitza kulturala bultzatzera, kultura integrazio eta gizarte-kohesiorako balio gisa garatzera, kulturaren alorrean garapen pertsonala garatzera (jakituria eta sormena sustatuz) eta abarretara zuzenduriko jarduera eta programak, betiere kultur agente lokalek antolatutak eta kudeatutak.

2021eko martxoaren 22an argitaratu ziren ALHAOn 10.ildoko dirulaguntzak –kultura-proiektuetarako eta finkatutako ekitaldi eta jaialdietarako dirulaguntzak– emateko deialdiaren laburpena eta berariazko oinarriak.

20 egun baliouduneko epea zegoen eskabideak aurkezteko, eta 2021eko apirilaren 22an bukatzen zen.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta dirulaguntzei buruzko udal ordenantza aplikatuz, eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko abenduaren 11n egindako bilkuran onetsitako Gasteizko Udalaren 2021eko dirulaguntzetarako deialdiari jarraiki, balorazio-organoa bildu egin da, eta kontzeptu bakoitzerako aurkeztutako eskabideei buruzko akta egin du, dirulaguntza emateko edo ukatzeko proposamenarekin. Akta horretan, ebatzi beharrekoen atalean agertzen diren moduan, honako alderdi hauek jaso dira:

– Dirulaguntza-deialdiaren berariazko oinarrietako 2.2 klausulan adierazitako kasua delako, dirulaguntza ukatu zaien proiektuen zerrenda.

– Dirulaguntza-deialdiaren Berariazko oinarrietako 11.2 klausulan adierazitako kasua delako, dirulaguntza ukatu zaien proiektuen zerrenda.

– Berariazko oinarrietako 9 klausulan adierazitako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik dirulaguntza ukatu zaien proiektuen zerrenda.

– Dirulaguntzaren onuradun diren proiektuen zerrenda.

Bestalde, Demite new music kultur elkarteak uko egin dio Dantz point proiektuarengatik jaso zezakeen dirulaguntzari.

Kontuan izanik indarrean dagoen gastuen aurrekontuan nahikoa zuzkidura badagoela 231203.3341.489.33 partidan, Hezkuntza eta Kulturako zinegotzi ordezkariak, honako erabaki-proposamena egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari, alkateak eskumenak eskuordetzeari buruz 2020ko otsailaren 24an emandako dekretua baliatuta:

Erabaki-proposamena

Lehena. Berariazko oinarrietako 2.2 klausulan zehaztutako betekizunak ez betetzeagatik —“Dirulaguntza jasoko duten proiektu kulturek irekiak izan beharko dute, Gasteizen garatu eta gauzatu beharko dira, eta Gasteizko herritar guztiei zuzendutakoak izan beharko dute.”— dirulaguntza ukatzea honako hauei:

- Basarteia elkartea, proiektua biztanleria-talde oso zehatz bati zuzenduta egoteagatik, eta ez herritarrei oro har.

- Ikusgarri Films SL., proiektua ez zegokion deialdian aurkezteagatik (Vitoria-Gasteiz Film Office-ren gidioen deialdira mugitu da).

Bigarrena. Berariazko oinarrietako 11.2 klausulan ezarritako kasua izateagatik, —ez dira diruz lagunduko “helburu nagusitzat ez kultura sustatu eta zabaltzea, baizik eta beste batzuk (sozialak, kirolaren arlokoak, erlijiosoak, politikoak, osasunaren arloak...) dituzten proiektuak” — dirulaguntza ukatzea honako hauei:

- Artes Trece proiektua.
- Asociación de Musicoterapia - Música, Arte y Proceso.
- Asociación difusión TEDX Almendra Medieval.

Hirugarrena. Berariazko oinarrietako 9.klausulan ezarritako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik, —“Irizpide horiek aplikatzen direlarik, gehienez eskura daitezkeen 100 puntuetatik gutxienez 50 lortzen dituzten proiektuak aukeratuko dira” — dirulaguntza ukatzea honako hauei:

1. kontzeptua:

- José Javier Frías Sáez 30 puntu.
- Iñaki Palacios Moran. 30 puntu.
- A. S. Arai konpartza 43 puntu.
- Irenka Pastor Ortiz 43 puntu.
- Jon Salvador Martínez 44 puntu.
- Asociación del Camino de Santiago Mendizaleak 46 puntu.

Laugarrena. Deialdiaren betekizunak betetzen dituztela egiaztatuta eta aurkeztutako proiektuak balioetsi eta lehenetsi ondoren, dirulaguntza hauek ematen dira honako zenbateko hauekin, Gasteizko Udalaren kultur proiektuei eta sendotutako ekitaldi eta jaialdiei laguntzeko.

Dirulaguntza eskuratzeko ezarritako gutxienekoa lortu eta gainditzen duten proiektuak eta dagozkien zenbatekoak taula hauetan jasotzen dira:

1. kontzeptua Gasteizko Udalaren kultur proiektuak eta sendotutako ekitaldi eta jaialdiak.

ERAKUNDE ESKATZAILEA	PROIEKTUA	PUNTUAK	EMANDAKO AURREKONTUA (EURO)
AEFAT, ASOCIACIÓN ESPAÑOLA FAMILIA ATAXIA-TELANGIECTASIA ELKARTEA	Aitzina Folk 2021	79	12.480,00
PLAY GASTEIZ	Vitoria-Gasteiz. Ciudad de cine	74	9.600,00
ASOCIACIÓN ALTRASTE DANZA	Danzálava 2021	73	9.200,00
INMERSIONES KULTUR ELKARTEA	Euskal Herriko artista berrien 14. biltzarra	72	8.800,00
EL MONO HABITADO KULTUR ELKARTEA	150 Gr	72	8.800,00
SINKRO MUSIKA ELKARTEA	XVIII Bernaola zikloa 2021	71	8.400,00
ZINHEZBA KULTUR ELKARTEA	Gazte film fest	68	7.200,00
EDUARDO HERNANDO VILARRODONA	Antzerki pixkat bat	68	7.200,00
KULTUR ACT ELKARTE ARTISTIKO ETA KULTURALA	Em Art 3.0	67	6.800,00
KOLEKTIVO MONSTRENKO	2021 Jardunaldi Monstrenkoak	66	6.400,00
ERAKUSMETA KULTUR ELKARTEA	Zas 2021	66	6.400,00
DAZZ JAZZ ELKARTEA	Dazz jazz	66	6.400,00
PARASITE KOLEKTIBOA ARTE ELKARTEA	Zurrumbilo Jaialdia VI	65	6.000,00
LIBURU ZAHARREN ENPRESABURUEN ELKARTEA	Gasteizko antzinako liburuen XXVI. azoka	65	6.000,00
HAZ KOOPERATIBA ELKARTEA TXIKIA	Al margen del deterioro	64	5.600,00
DZAST ELKARTEA KULTURALA	Jalgi! Voz festival	63	5.200,00
ATIZA KOMIKI MARRAZKILARIEN ELKARTEA	Crash Cómic 2021	63	5.200,00
GASTEIZKO GANBERA- MUSIKAREN LAGUNEN ELKARTEA	XIV Bis Gasteizko Nazioarteko ganbera-musika jaialdia / ikastaroa 2021	61	4.400,00
SLEEPWALK COLLECTIVE	Larrialdi irteerak	61	4.000,00
ARABAKO JAIOTZAZALEEN ELKARTEA		61	4.400,00
ZABALGANA BATUZ	Mariturriko I. Kultur Aste Erromatarra	60	4.000,00
JAVIER LOPEZ GABILONDO	Gasteiz Hip Hop II. edizioa	59	3.650,00
IRIS AUDIOVISUAL ELKARTEA	Udagora Fest 2021	59	1.400,00
ASOCIACIÓN PARA LA DIFUSIÓN DEL ARTE, LA CULTURA Y EL HUMOR KOMEDIALDI ARABA	Komedialdia	59	3.650,00
ARMANDO ANTONIO PARRA FLORES	La música va a la escuela en Vitoria-Gasteiz	58	3.300,00
GUERRILLA KULTURALA ELKARTEA	"Kaleak Hartu" ART the streets Jardunaldia (guerrilla bitartekintzaren barruan)	58	3.300,00
ARAÑA DEL ROCK PRODUCCIONES KULTUR ELKARTEA	IX. Osteguna Rock jaialdia 2021	57	2.950,00
DEMITE NEW MUSIK KULTUR ELKARTEA	Dantz point	57	2.950,00
ILIANA ROSS GONZALEZ	Entrepianos	56	2.600,00
DAVID ELEJALDE FERNANDEZ	Aztarna Beltza Festival	56	2.600,00
KIKUTE ELKARTEA	Argazkigintza eta Mugikorraren III. Topaketa	55	2.250,00
ARABAKO ATENEO ERREPUBLIKANOA KULTUR ELKARTEA		55	2.250,00
MULIXKA DANTZA ELKARTEA	Zabaldantz App	54	1.900,00
PEDRO GONZALEZ DE VIÑASPRES GENOT	Los palos de ciego de Horacio	53	1.550,00
ARITZ LOPEZ GOMEZ	Larrua Lab 21	53	1.550,00
PEDRO MARIA ARRIOLA AGUIRRE	Así creció Judimendi	52	1.200,00
HANDICAP GASTEIZ KULTUR ELKARTEA	Por si las moscas	50	500,00
			180.080,00

2. kontzeptua: Dinamizazio soziokulturalera, kulturartekotasuna sustatzera, bizitza kulturala bultzatzera, kultura integrazio eta gizarte-kohesiorako balio gisa garatzera, kulturaren alorrean garapen pertsonala garatzera (jakituria eta sormena sustatuz) eta abarretara zuzenduriko jarduera eta programak, betiere kultur agente lokalek antolatuta eta kudeatuak.

	ERAKUNDE ESKATZAILEA	PROIEKTUA	PUNTUAK	EMANDAKO AURREKONTUA (EURO)
1	BIZTANLE AFROAMERIKARREN AFRO ELKARTEA	Kulturarteko XXXVI. astea, "Desberdintasunak"	69	4.008,00
2	RAÍCES DE EUROPA KULTUR ELKARTEA	XVII. Europar Jardunaldiak	69	4.008,00
3	AFRIKA MINIATURAN ELKARTE SOZIOKULTURALA	Camerfesti, Gasteizen kamerundarren kultura sustatzea	68	3.876,00
4	BAIKOR ATSEDEN TALDEA	Bidariak	64	3.348,00
5	ASVE – SOLIDARIDAD VASCO ECUATORIANA ELKARTEA	Hablando de cultura	61	2.952,00
6	ESTIBALIZKO AMA ELKARTEA	Arabako Erromanikoaren Interpretazio Zentroa	51	1.632,00
				19.824,00 €

Bosgarrena. Demite new musik kultur elkarteak Dantz point proiekturako aurkeztutako uko egitea onartzea.

Seigarrena. Laguntza horien zenbatekoa 23.12.03.3341.489.33 aurrekontu-partidaren kontura jasota uztea, eta horiek ordaintzea onestea.

Zazpigarrena. Bi zatitan ordainduko dira dirulaguntzak: lehenengo, dirulaguntzaren ehuneko 80 ordainduko da; gainerako ehuneko 20a, berriz, gastuak justifikatu ondoren ordainduko da, 23.12.03.3341.489.33 aurrekontu-partidaren kontura.

Zortzigarrena. Dirulaguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahal izango dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago, jasotako diru-kopurua itzultzeko eskatuko zaie.

Bederatzigarrena. Erabaki hau Udalaren web-orrian eta ALHAOn argitaratzea, bai eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean ere.

Hamargarrena. Dirulaguntza honen xede diren proiektu guztiek diruz lagundutako jarduera egiten den unean indarrean dagoen araudian aurreikusitako osasun-neurriak bete beharko dituzte. Halaber, espazio publikoa okupatzen bada, Gasteizko Udaleko Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Sailak emandako baimenak izan beharko dituzte.

Hamaikagarrena. Erabaki honen kontra, aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean — jakinarazte-egunaren biharamunetik —, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123.artikuluaren eta hurrengoetan xedatutakoaren ildotik, eta horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen den egunaren biharamunetik.

Dena den, interesdunek egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 28an

Hezkuntza eta Kultura Saileko zuzendaria
FRANCISCO JAVIER GALVE BORJA